

# **Bizitza da lehena, kapitalaren gaineratik**

## ***La vida en el centro***

2019ko Maiatzaren Lehena

Mitxel Lakuntza



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## **2019ko Maiatzaren lehena**

### **Bizitza da lehena**

Nuestras vidas frente al capital

#### **LA CANADIENSE**

Aurten mendeurren oso berezia ospatu da; duela ehun urte dekretu baten bidez zortzi orduko lanaldia ezarri zen. 1919ko apirilaren 4an izan zen, baina ez espainiar gobernu eskuzabala zelako, greba baten ondorioz baizik. Katalunian izan zen: Bartzelonako La Canadiense konpainia elektrikoan langileek 44 egunez greba egin zuten.

Ez dakit La Canadienseko langile haiek etorkizuna nola irudikatuko zuten... Baina ziur nago ez zutela inola ere pentsatuko mendebete geroago Euskal Herriko sindikatu nagusia Maiatzaren Lehenez kalera irtetea zer aldarrikatzeko, eta oinarrizko kontu bat: "Bizitza da lehena".

#### **BIZITZA**

Munduan zehar langileok eta sindikatuok 100 urte baino askoz gehiago daramagu borrokan, eta gaur zer aldarrikatuko dugu, eta BIZITZA

- GAUR lan egitera behartzen dituzten milioika haurrei lapurtzen zaien bizitza, edota bortxaz lanean ari zaien milioika helduei kentzen zaiena
- Azken urtean hil dituzten 65 sindikalistei kendutako bizitza, Brasilen, Txinan, Kolonbian, Mexikon eta beste herrialde batzutan.
- Bortizkeria patriarkalak hildako milaka emakumeen bizitza.

"Bizitza da lehena; gure bizitzak kapitalaren aurrean". Biak, bizitza eta kapitalismoa, kontrajarriak dira. Milioika pertsonaren bizitza eta bizimodua eta planetaren iraupena bera sistema horrekin lehian dago.

Aldarrikatzen dugu bizitza eta bera duintasunez bizitzeko aukera ematen duten eskubide laboral eta sozialak beti etekin ekonomikoaren gainetik kokatu behar direla.

Hori da aurtengo Maiatzaren Lehenean jaso nahi izan dugun diskurtso eta ikur feministaren zati bat; izan ere, beste aldarria da bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren lan guztien aitortza eskatzen dugu, enplegu formaletik haratago ikustezinak diren eta emakumeek egiten dituzten zaintza lan guztiak erdigunean kokatzea.

## LANGILE KLASEA

Beste edozerren gaineratik gaur solidario gara munduko langileekin, gaur oraindik

- munduko herrialde gehienetan langileei debekatu egiten zaielako antolatzea, sindikatu bat eratu edo afiliatzea;
- munduko herrialde gehienetan greba eta negoziazio kolektiborako eskubidea urratzen delako;
- adierazpen askatasuna, bilera edo manifestazio eskubidea hainbat estatutan jazarria delako;
- langileen, batik bat langile emakumeen, aurkako bortizkeria eguneroko kontua delako oraindik milioika kasutan.

Gaurko eguna berrindartze eta elkartasun eguna dugu. Berrindartu eta berretsi nahi dugu, gure errealitatea lausotu edo ezkutatzeko ahaleginak ahalegin, oraindik izena badaukagulako; izen kolektiboa, bestela ezin baitugu gure burua ezagutu: langile klasea gara. Egia da duela 40 urtetik hona aldatu dela, anitzagoa dela, baina langile klasea gara.

Sekula ez gara lantegietako hormetara mugatu; baina gero eta leku gehiagotara iristen gara: zerbitzariak gara, garbitzaileak, sorosleak, zaintzaileak, begiraleak, informatikoak eta etxeko langileak, etxekoandreak, langabeak, paperik gabeak eta egoera erregularrean gaudenak... baina gure kezka eta nahiak partekatuak dira.

Sindikalismoak erronka berriak ditu. Kapitalismoak enplegu gero eta prekarioagoak sortzen ditu. Lan batzuk zein latzak diren ezkutatzeko eufemismoak baliatzen dituzte, esaterako "lankidetzak ekonomia"... Prekarietatea areagotuz etekinak puzteko formula bat besterik ez da. Formula berberak, baina muturrera eramanez: lanaren indibidualizazioa, sasi autonomoak, bakartuta egotea, soldata kaskarrak, erreferentzia kolektiboekiko urruntasuna...

Esaten digute langile klaserik ez dagoela, eta prekarietatea hedatzen ari dira, lan munduan zein arlo sozialean.

Prekarietate horren ondorioz iaz Euskal Herrian 67 langile hil ziren. Gehiegizko esfortzua, enplegu bat baino gehiago izan beharra, beldurra, azpikontratazioa... Baina ez dituzte baliabideak gehitu nahi ikuskaritza hobetzeko, zigorrak ezartzeko...

Erabaki estruktural onartezina dago horren atzean: patronala ez da zapuztu behar.

Hori guztia esan nahi dugu kapitalaren gaineratik bizitza kokatu nahi dugula esatean.

La Canadienseko greba hartatik mendea bete denean, bizitza eta langile

klasearen existentzia aldarrikatzen dugu; esaten dugu geuk **egiten dugula mundua.**

## **Gora bizitza eta Gora munduko langileria!**

### **ERASO KAPITALISTA**

Kapitalismoa gogortzen ari da. Kapitalismo honek gizon-emakumeei eta herriei neurri bakarra aplikatzen die; bere kezka bakarra da zenbateko etekina sor dezaketen.

Kapitalismo bortitza, gerrak eta matxinadak pizten dituena: Hor ditugu Venezuela, Siria edota orain Iran.

Kapitalismo itsua, diru-goseak besterik mugitzen ez duena; kapitalismo horrek erabaki du planetaren beraren mugak gainditzea; bizitzak, gure bizitzak irauteko errespetatu beharreko mugak.

### **NEO-FAXISMOA**

Ez da harritzekoa, ondorioz, kapitalismoa gero eta gogorragoa den honetan, eskuin muturreko erreferentzia politikoak indartzea.

Ultraeskuinaren mehatxua eta botere gero eta handiagoa kapitalismo basatiaren beste aurpegi bat da, aberastasuna metatzen doalarik eta aberastasuna munduan gero eta okerrago banatzen ari delarik.

Politikak gero eta ankerragoak dira: harresiak eraikitzen dira, Mediterranea hilobi bihurtu da, emakumeen eskubideak zanpatzen dira, eta xaxatu egiten dute xenofobia, homofobia edota LGTBI fobia.

Estatuko Hauteskuadeak.....

*Oker gabiltza uste badugu eskainuen %50 lortu ez dutelako mehatxua desagertu dela. Mehatxua hor dago oraindik. Oso larria da, eta politika aldatzen ez bada, goitik behera aldatu gainera, faxismoaren gorakada ez da geldituko.*

### **EZKERRA BEHAR DUGU**

Horregatik guk Maiatzaren Lehen honetan klase politiko guztiari eskatzen diogu balio jakin batzuren aldeko konpromisoa: berdintasun, solidaritate eta askatasunaren aldeko konpromisoa.

Ezkerreko politikara itzuli behar da, jendearen arazoak aintzat hartu. Ezkerra behar dugu, kalean, lantokietan eta instituzioetan.

Errudunak nabarmen utzi behar dira; eta errudunak eliteak dira, ez gure kidekoak, arazoak ditugunean

Kapitalari eta boteretsuei aurre egiteko konpromisoa; ez protesta egiten duen jendea zanpatzekoa.

Konpromisoa, gure gobernuen politika publikoak aldatu eta jendeari egiten diotena gehiago egin ez dezaten. Politikari beste norabide bat eman behar zaio.

Horregatik, ELAk uste du Maiatzaren Lehena aukera ona dela aldarrikatzeko indar desberdinen arteko lankidetzaren espazioa; espazio horren zutabeak ekologismoa, feminismoa, erabakitzeko eskubidea eta eskubide sozialak dira.

ELAren ustez, eskuin muturraren mehatxua geldiarazteko barrerarik egokiena da jendarte zibil antolatuaren indarra, oinarriko boterea eta gizarte-mugimendu eta sindikatu ugariak jendea ideologizatzeko egiten dugun lana, eta mundu eta herri hobeak lortzeko hartu dugun konpromisoa. Eskuindarren gezurrak ez dira hain erraz irensten organizazio horiengandik gertu egonez gero.

## **KONTRABOTEREAREN INDAR KOLEKTIBOA**

ELAk oraindik ere garrantzia ematen die ezkerak eta sindikalismo historikoak izan dituen tresnei. Antolatu egiten gara eta amankomuna dena defenditzen dugu, gure bizitzak jokoan daudelako eta badakigulako mobilizazioak, parte hartze sozialak eta grebak emango digula bizimodu hobeak izateko aukera.

Guk sinesten dugu indar kolektiboan.

Botere ekonomiko eta politikoek nahi dute jendea bakarka egotea. Ez dute nahi beraien eta jendearen artean bitarteko indar kolektiborik.

- Patroiaren boterearen eta langile bakanaren artean sindikatua nahi dugu; sindikatua behar dugu, jendea defenditu eta bere egoera hobetzeko instantzia kolektiboa.
- Emakumeen eta sistema heteropatriarkalaren artean antolakuntza behar da; mugimendu feminista behar da. Halaxe ikusi dugu berriz aurtengo Martxoaren 8an.
- Beharrezkoak dira planeta bakarra dugula gogoratuko duten organizazioak; hauek alarma jotzen dute, esanez sistema honek ez duela etorkizunik eta erabaki urgenteak hartu behar direla.
- Indar kolektiboa behar da ere migrante eta errefuxiatuen eskubideak eta bizitza defenditzeko. Datorren igande honetan, maiatzaren 5ean, Durangon hitzordua daukagu: Herrien Besarkada, migranteen eskubideen alde eta faxismoaren aurka egiten ari den Europako kanpainaren baitan.
- Beste antolakunde batzuk, berriz, giza-eskubideen alde egiten dute. Hauen artean, Altsasuko gazteen senideen elkarteak, justizia eta proportzionaltasuna aldarrikatzen duena, edota Herrira, presoekiko elkartasunaren eskubidea defenditzen duena; horregatik 47 pertsona

epaituko dituzte. Sindikatua Madrilen izango den epaiketan deklaratzera joango da, ezin baita onartu presoekiko elkartasunaren jazarpena edota euskal presoak Euskal Herriratzeko aldarria kriminalizatu.

Horregatik ELAk aldarrikatzen du organizazio sozialen indar kolektiboa eta mobilizazioaren garrantzia. Lan munduan inboluzioa pairatzen ari gara, baina baita inboluzio sozial eta demokratikoa ere. Horregatik kaleak hartzea, jendarte hobea eraikitzeko asmoa duten mugimenduetan parte hartzea, ariketa demokratikoa da.

Borroka sindikalean eta mobilizazio horietan parte hartzea jendarte honetako gunerik hoberenetan parte hartzea da. Zera kolektiboari erasotzen zaionean sindikatuaren izanari berari egiten zaio eraso.

## **AGENDA NEOLIBERALA ETA AUTORITARISMOA**

Errealitate bat ezkutatu nahi dute: Belaunaldi berriak lehengoak baino okerrago bizi dira.

Zein da Eusko Jaurlaritzaren politika?

- Kapitalari aukera ematen dio lan errenten zati handi bat harrapatzeko. 2010etik hona lan errentek aberastasunean lau puntu galdu dituzte, eta 80etatik hona hamabost puntu.
- Enplegua gero eta prekarioagoa da; kontratuen %90 tenporalak dira, eta langabeziaren datu ofizialak ez dira errealak: hemen, Euskal Herrian, benetan lanik gabe %6 edo %10 gehiago dago.
- Administrazioeko sektore batzutan langileen %40 eta gehiago enplegu finkorik gabe dago.
- Kontratu publikoak prezioz azpitik lizitatzen dituzte, eta ukatu egiten dute gutxieneko soldata 1.200 euroan finkatzea.
- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako herri-ekimenak baztertzen dituzte, 51.000 sinadura zakarretara botata.

Gauza jakina da enpresek eta kapitalak erabakitzen dituztela gure gobernuen programak.

ELA matxinatu egiten da politika honen aurrean, eta bi bidetatik erantzuten du: ikusten duena kontatuz eta aldatzen saiatuz.

Baina hori Urkulluren gobernuak ez du onartzen. Ez daude ohituta oposizioa topatzen; horregatik, baten batek egiten duenean ezin dute jasan.

Duela egun batzuk, Andoni Ortuzarrek, noiz eta hauteskunde kanpaina betean, gure sindikatuari kritika gogorak egin zizkion. Oso deigarria da sindikalismoaren aurka kanpaina egitea, bereziki ELAren kontra. Esan zituen gauza batzuk ez ditut errepikatuko, baina mezu argi batzuk helarazi nahi dizkiogu:

1. Leporatu zigun grebak Euskadiren eta erakundearen aurka egitea. Guk ez dugu inoren kontrako grebarik egiten. Guk grebak egiten ditugu jendearen lan baldintzak hobetzeko; sufritzen ari den jendearen baldintzak. Bere alderdiak grebarik ez egotea nahi badu, erraza dauka: bermatu dezala agintzen duen administrazioen esku dauden lan baldintzak duinak izango direla.
2. Dioenez, jendartea eta abertzaleak zatikatzen omen ditugu. Zerk zatitzen du, grebak ala prekaritateak? Nonbait ez du jendartea zatikatzen AHTko obretan dagoen esklabismoak; 800 euroko soldatek; Osakidetzan egiten dituzten murrizketek; ordaindu ezin diren errentek; soldata arrakalak...
3. Euskadi errausten ari ginela leporatu zigun. Berdintasun eta justizia handiena dagoen herrialdeetan sindikalismoa indartsua izaten da. Herrialdeak errausten dituen beste zerbait da, patronalaren dirugosea, aurrean oztoporik ez duenean.

Errautsak aipatzen hasita, badira aipatzeko beste kontu batzuk:

- Hobe luke Ortuzarrek barkamena eskatzea Euskaltelekin egin dutena eta gero. Diru publikoz sortu zen enpresa eta zuntz optiko sarea epeka espekulatzaileri saldu zieten, ezin merkeago gainera. Hori bai dela herri bat erraustea!
- Hobe luke euskal industrian gertatu den desinbertsio publikoa gogoratzea: Xey, La Naval, CEL... Errautsak eurak utzi dituzte, egin duten industri politikarekin.

Errotze handiagoa, inbertsio handiagoa, inbertsio publikoa jasotzen duten enpresak estuago hartzea... eta Tapia ETBn gutxiago agertzea.

EAJren buruak ELAri aurpegiratzen dio irrealitatean egotea eta porrotaren strategiari eustea.

Haatik, ELAk gertutik ezagutzen du gure herriko errealitatea, oinak lurrean ditu eta, gainera, gomendatu ohi diguten bezala, hauteskundeetan parte hartu dugu; hauteskunde sindikaletan, hauek baitira gureak. Baita irabazi ere: ordezkartzan inoiz izan dugun markarik altuena gainditu dugu, EAEn %41,50 eta Nafarroan %22,90arekin. Hau da gure errealitatea, askoren gustokoa ez bada ere. Eta errealitatea onartu egin behar da. Noski, nahiko lukete bestelakoa izatea, baina kontua da ELA dela nagusia.

## **AUTORITARISMOA**

Gobernu honek ez dauka kalitate demokratikorik, eta sobera du harrokeria. Gero eta jarrera autoritarioagoa hartzen ari da, eta hau ez da soilik Elkarrizketa Sozialeko mahaiaren inguruan gertatzen, non gutxiengoak hartzen duen parte, arau demokratikoen bermerik gabe.

Ez, larriagoa da greben aurrean izaten duen erreakzioa: Gipuzkoako komisaria eta auzitegietan greba egiten ari diren garbitzaileei ezarritako gutxieneko zerbitzuak; Tabakaleran negoziatzeko bileretan betoa ezarri diote sindikatuari... Baina okerrena izan da Gipuzkoako zahar-etxeen inguruan dokumentuak faltsutu eta gezurretan dabilzala.

ELAk honelako akusazioak ez ditu egunero botatzen; hemen gertatu dena oso larria da, eta ez dugu ontzat emango. Honetaz hitz egingo da, eta grebak jarraitu egingo du, langileek hala nahi dutelako, jakina, hitzarmena lortu arte.

## **GREBA DA GAUZA BATZUK LORTZEKO BIDE BAKARRA**

Injustizia kasuetan, gatazka piztuko da. Hau ez da gure erabakia.

Eta gatazka dagoenean sindikatua da jendeak borrokatzeko eskura duen arma. Azken urtean Euskal Herrian greba kopurua asko gehitu da.

Grebak egiten du posible lan hitzarmen onak lortzea; ondo dakigu grebarik gabe gauza batzuk lortzea ez dela posible.

Greba bakoitza apustu gogorra izaten da; ez da biderik erosoena, baina ilusioa ematen du.

Grebak gero eta luzeago eta gogorragoak dira. Zergatik?

- Patronalak ez diolako uko egiten bere neurrira egindako legeak eskaintzen dizkion aukeretako bati ere.
- Herri administrazioek murrizketak lege bihurtu dituztelako, eta ez dutelako nahi garaipen sindikalak beste kolektibo batzuentzat eredu izatea.

Alabaina, sindikatuak erabaki du greba bere estrategiaren ardatz izango dela, eta horretarako tresnarik solidarioena izango dugula, erresistentzia kutxa.

ELAk Erresistentzia Kutxa indartzea erabaki du, %22 gehitu eta hilean 1.100 euro izateraino, badakigulako hau dela inbertsiorik onena: borroka egiten dutenengan inbertitzea.

Duela aste gutxi, gure azken kongresuan, argi esan genuen: sindikatuak zentzua du militanteentzat prekarietatea borrokatzeko tresna denean.



Hori da sindikatu baten eginkizuna. Horregatik egunero, baina bereziki Maiatzaren Lehena iristen denean, borroka horiek ospatu egiten ditugu. Borroka horiek guztionak direlako.

## **EMAKUMEAK LEHEN LERROAN**

Eta ez da kasualitatea esku artean ditugun greba gehienak eta luzeenak emakumeak nagusi diren sektoreetan ematea. Ez da kasualitatea sektorerik prekarioenak emakumeak nagusi diren eremuetan egotea.

Sindikatuan borroka sindikal feministak ditugu esku artean: Gipuzkoako erresidentziak eta Gipuzkoako komisaldegi eta epaitegietako garbitzaileen greba, esaterako.

Borroka sindikal hauek feministak dira. Zergatik? Zaintza lanen duintzea, soldata arrakalarekin bukatzea... eskatzen dugulako. Grebalari hauentzat sindikatua emakume eta langile gisa ahalduntzeko tresna bat da, eta hori harro esan behar dugu.

Dudarik gabe, feminismotik asko daukagu ikasteko; etorkizuneko sindikalismoa feminista izan behar da ezinbestean, eta horretarako lanean ari gara ELAn.

Era berean, emakumeak langile borrokaren lehen lerroan daude une honetan eta eguneroko borroka feminista hauetatik ekarpen garrantzitsua egiten diogu feminismoari.

Kongresu bat egin dugu duela hiru aste. Lehenengo aldiz hitz egiten dizuet Maiatzaren Lehenean idazkari nagusi bezala.

Guretzat, zuzendaritzako kideontzat, benetan ohorea da jendartean zuen ahotsa eta aurpegia izatea, egunez egun lantoki eta sektore bakoitzean borrokan ari zaretenon ahotsa entzunaraztea.

Borroka sindikalak hobetu egiten gaitu. Borroka sindikalak BIZITZA ematen digu, bai guri, baita gure herriari ere.

Maiatzaren Lehena dela eta aldarrikatzen dugu ere militante sindikal izatea ezkertiar, demokrata, abertzale eta feminista izateko modu pribilegiatua dela. Horregatik jaiegun honetan poztu egiten gara BIZITZA xede duten borroka horiek denak ikusita. BIZITZA baita garrantzitsuena.

**GORA MAIATZAREN LEHENA!**

**GORA EUSKADI ASKATUTA !**